

ZARAUTZ / Liburu bilketa arrakastatsua Sanz Enea liburutegian

ZARAUTZ. DV. ELAN-Euskadi eta Zaharautz, Gobernuz Kanpoko Erakundeek, apirilean, liburua protagonista izan zen hilabetea, liburu bilketari ekin zioten. Sanz Enea Liburutegiak bilketa horretan parte hartu zuen eta bildutakoa aipatutako GKE-en artean banatu zuen. Beraz, liburuak, zein CD, VHS, DVDekin beste herriko biztanleei laguntzeko prest egon zirenek liburutegira ekarri zituzten. Aurtengo kanpaina arrakastatsua izan da. Liburutegiko irakurleek horrela eskatuta kanpainak maiatzaren 15a arte iraun zuen. Dakizuenez, ELAN-Euskadi taldekoek bildutakoa Cuba eta Hegoaldeko herrietara bidaliko dute. Aurten estreinakoz Zaharautz Elkartasun taldeak kanpainan parte hartu du eta bildutakoarekin hainbat garaitan bigarren eskuko merkatuak jarriko dituzte (lehena maiatzaren 19an izan zen). Sanz Enea Liburutegian guztira 1.527 dokumentu bildu dira, horietatik 1.186 liburu, ipuin eta entziklopediak izan dira eta beste 341, berriz, ikus-entzunezkoak (CD, VHS, DVD, DC-ROM). Liburutegiak bildutakoa ELAN-Euskadi taldekoei gaztelaniazko dokumentuak, hain zuzen 476 dokumentu gaztelaniaz idatzita (liburu, ipuin...) eta 98 ikus-entzunezko (CD, DVD). Bestalde, Zaharautz Elkartasun taldekoei 710 dokumentu idatzi (euskarazko guztiak bigarren eskuko merkaturako) eta 243 ikus-entzunezko (gehienbat VHS) banatu zitzaizkien.